

GIDA-ESKULIBURUA:

OSASUN ESKULARRUEN erabilera egokia

2017KO

EDIZIOA

EGILEAK:

Erosketa zentralizatuetako erizaintzako talde teknikoa

MARGARITA ALONSO ENCINAS	PREBENTZIO ZERBITZUA
MARÍA ASUN AZNAR URBIETA	DONOSTIALDEA ESI-A
ANA CHUECA AJURIA	ERIZAINZAKO ZUZENDARIORETZA (ASISTENTZIA SANITARIOKO ZUZENDARITZA)
ROBERTO BUSTO QUINCOSES	PREBENTZIO ZERBITZUA
ESTHER CUESTA DE LA CAL	EZKERRALDEA ENKARTERRI- GURUTZETA ESI-A
MARÍA ÁNGELES LÓPEZ SALSAMENDI	ARABA ESI-A
MARÍA JESÚS PACHO ROJO	ARABA ESI-A
ANA LORETO PASCUAL IBARRA	BILBAO BASURTU ESI-A
VIRGINIA PLAZA HERNÁNDEZ	BARRUALDE-GALDAKAO ESI-A
Manuel González GómezEN (DONOSTIALDEA ESI-aren Komunikazio Unitatea) eta Miren Edurne Arriaga Urienen (ERIZAINZAKO ZUZENDARIORETZA) laguntzarekin	

ARGITARATZAILEA ETA BANATZAILEA: OSAKIDETZA

EDIZIOA: 2017

LEGE-GORDAILUA: SS 793-2015

Gida/Eskuliburua: eskularru sanitarioen erabilera egokia

AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	1
2. ESKULARRU SANITARIOAK EGOKI ERABILTZEKO ARAU OROKORRAK	2
2.1 Egin beharreko atazaren arabera, eskularrua erabiltzeko beharra.....	2
2.2 Eskularruak erabili baino lehen jarraitu beharreko pausuak.....	3
2.3 Eskularru esterilak ongi janzteak.....	4
2.4 Eskularrua kentzea	5
3. ESKULARRUA ERABILTZEA ARRISKUAREN ARABERA.....	6
3.1 Kutsatzaile biologikoekiko esposizioa.....	6
3.2 Zitostatikoekiko eta beste farmako arriskutsuekiko esposizioa	7
3.3 Produktu kimikoekiko esposizioa	7
3.4 Erradiazio ionizatzailea	8
4. ARAUZKO ESKAKIZUNAK.....	8
5. ESKULARRUAK ERABILTZEAREN KONTRAKO ONDORIOAK	9
I. ERANSKINA: ESKULARRU SANITARIOAREN ERABILERA EGOKIA.....	10

1. SARRERA

Eskularruak lehen mailako prebentzio-neurri bat dira arrisku biologikoaren aurka, eta nahiz eta zulaketa saihesten ez duten, transferitutako odol-kopurua modu esanguratsuan murrizten dutela egiaztatu da; beraz, agente biologikoekin infektatzeko arriskua modu nabarian murrizten dute.

Horregatik, eskularruak babes-barrera garrantzitsuena dira infekziosoa izan daitekeen material biologikoarekin ez kutsatzeko (pazienteen odola, gorputz-fluidoak, jariakinak, muki-mintzak eta kaltetutako azala) eta langile sanitarioek pazienteei mikroorganismoak transmititzeko aukerak murrizten ditu.

Eskularruek bi funtzio dituztela esan daiteke:

- Langilea bere osasunerako arriskutsua izan daitekeen jardueren babestea Babes Indibidualerako Ekipamendu gisa.
- Pazienteak eskularruaren erabiltzaileak eramandako agente biologikoen transmisio posible batetik babestea.

OSAKIDETZAK, bere profesionalen segurtasun eta osasunaren konpromisoarekin bat etorriz, eskuliburu hau plazaratu du eta helburu nagusia eskularru sanitarioak zuzen erabiltzeko gida eta orientazioa izatea da.

2. ESKULARRU SANITARIOAK EGOKI ERABILTZEKO ARAU OROKORRAK

Eskularruek prebentzio-neurri gisa duten eginkizuna betetzeko, beharrezkoa da horiek modu egokian erabiltzea eta horretarako garrantzitsua da hau ezagutzea:

2.1 Egin beharreko atazaren arabera, eskularrua erabiltzeko beharra

Eskularruak **BAI** erabili behar direnean, esku-higienearekin batera

Odolarekin, ehunekin eta fluido biologikoekin kontaktua dagoen prozedura eta teknika sanitarioetan.

Odolarekin edo fluido biologikoekin kutsatutako objektuak, materialak edo azalak manipulatzekoan.

Arropa zuria, hondakinak edo beste material batzuk kudeatzekoan.

Zauriak sendatzea eta ehunetan, organoetan edo barrunbeetan penetrazio kirurgikoa egitea dakarren beste edozein prozedura inbaditzailean.

Odol-lagina ateratzekoan, xurgapena edo intubazioa egiterakoan, kateterrak jartzekoan.

Pazientearen mukosekin edo kaltetutako azalarekin kontaktua izaterakoan edo odola edo gorputz-fluidoak zipriztindu dezaketen prozedura diagnostikoak egiterakoan.

Prozedura batean erabili behar dela beren-beregi adierazten denean.

Ospitaleko isolamenduak (kontaktua)

Eragile zitostatikoak manipulatzeko (prestatzeko, emateko, iraizkinak garbitzeko...).

Medikazioa ematea bena-barnetik, larruazalpetik, muskulu-barnetik, trakea-barnetik edo hezur-barnetik

Produktu kimikoak manipulatzekoan edo hondakin biosanitarioekin kontaktua izaterakoan.

Teknika esterila erabiltzen den prozeduretan.

EZINBESTEZ ERABILI BEHAR DIRA osasun-langileak ebakiak, zauriak edo larruazaleko lesioak dituenen.

Era berean, kontuan izango dugu ere, eskularruak aldatu beharko ditugula:

Paziente ezberdinak artatzean.

Paziente bera zaintzean, kutsatuago dagoen eremu batetik garbiago dagoen eremu batera igaro behar bada.

Jarduera edo prozedura aldatzean.

Ziprztindu, hautsi edo zulatu badira.

Ez ahaztu:

- Eskuak garbitu edo deskutsatu behar dira eskularruak erabili aurretik eta ondoren
- Eskularruak ezin dira garbitu, ezta berrerabili ere.
- Eskularruak beharrezkoak direnean erabili behar dira, eta ezinbesteko denbora-tartean; izan ere, gehiegi erabiliz gero, segurtasun faltsua sor daiteke eta kutsadura gurutzatuak gora egin dezake.

Noiz **EZ** da beharrezkoa eskularruak erabiltzea eta nahikoa da esku-higienearekin.

Pazienteak lekualdatzea.

Janaria banatzea eta jasotzea.

Material garbia manipulatzekoan.

Bena-barneko fuildoterapia doitzeko.

Oheko arropa aldatzean edo jasotzean, gorputz-fluidoekin zikindu diren kasuetan izan ezik.

Pazienteak aztertzea odola, gorputz-fluidoak edo mintz mukosoak ukitu gabe (konstanteak hartzea, EKG egitea, miaketa erradiologikoa...).

Konstanteak neurtzean eta miaketak egitean larruazal kaltegabea dagoenean.

Medikazioa ahotik ematerakoan, tantakoak aldatzerakoan.

Fisioterapia-tratamenduak larruazal kaltegabean.

2.2 Eskularruak erabili baino lehen jarraitu beharreko pausuak

- Eskuetan eraztunik, erlojurik eta abarrik ez izatea, horiek eskularrua apurtu dezaketelako, kremarik ez botatzea, azazkalak motzak izatea, esmalterik gabe, infekziosoa izan daitekeen materiala ongi garbitzeko.
- Eskuetako higiena egin.

Gogoratu eskularruak erabiltzeak ez duela eskuak garbitzea ordeztzen



2.3 Eskularru esterilak ongi janztea

Eskularru esterilak erabiltzea beharrezkoa bada, garrantzitsua da eskularru-mota hori haien esterilitatea mantenduz jartzea. Jarraian horiek jartzeko teknika azaltzen da:



Jarri eskularruak eremu esterilean.



Hartu lehenengo eskularrua gugandik gertuen dagoen eremutik eta sartu dagokion eskua, pazientearekin kontaktua izango duen eremua ukitu gabe (eskularruaren kanpoko aldea)



Bigarren eskularrua jartzeko, sartu atzamarrak argazkian adierazten den bezala. Horrela, lehenengo eskularrua kutsatzea saihestuko dugu.



Maniobra amaitzeko, sartu atzamarrak tolestuta gelditu den kanpoko aldetik eta luza ezazu. Modu honetan, eskularruak ez dira kutsatuko.

ES.

2.4 Eskularrua kentzea

Garrantzitsua da eskularruak modu egokian kentzea, elementuak langilea ez kutsatzeko, jarraian horiek kentzeko teknika azaltzen da:



Imurtxi egin lehenengo eskularruaren kanpotik



Kendu eskularruaren barruko aldea ukitu gabe



Kendu eskularrua guztiz



Jaso lehenengo eskularrua beste eskuarekin



Kendu bigarren eskularrua atzamarrak barrutik sartuz



Kendu eskularrua kanpoko aldea ukitu gabe



Bota bi eskularruak dagokien edukiontzian

3. ESKULARRUA ERABILTZEA ARRISKUAREN ARABERA

3.1 Kutsatzaile biologikoekiko esposizioa

Agente biologikoen aurrean babesteko eskularruek iragazkortasuna, ahalik eta malgutasunik handiena eta sentikortasun handia ziurtatu behar dituzte, lan-mota guztietan erabili ahal izateko.

Eskularruak latex naturalarekin egin daitezke, baita beste elastomero batzuekin ere, adibidez, nitrilo, binilo, neopreno eta abarrekin. Beharrezkoa denean, esterilak izango dira.

Eskularru-mota	Helburua	Adibideak
ESTERILAK ▪ Latexa ▪ Nitriloa ▪ Sintetikoak (alergia latexari) ▪ Polimeroa	▪ Asepsiari eustea, hesi naturalak hausten direnean (larruazala, mukosak, etab.) ▪ Asepsiari eustea prozedura inbaditzaileetan eta beste teknika aseptiko batzuetan	▪ Interbentzio kirurgikoak ▪ Kateterrak jartzea bide zentraletan ▪ Hemokultiboen erauzketa ▪ Sendaketak ▪ Zundaketa besikala ▪ Kateter zentrala bide periferikotik sartzea ▪ Kateterrak jartzea eta arteria eta zainetako fistulak kudeatzea ▪ ZIUn jariakinak xurgatzea
EZ ESTERILAK ▪ Latexa ▪ Biniloa ▪ Nitriloa ▪ Polimeroa	Honako hauekin kontaktu fisikoa saihestea: jariakinak, fluidoak, larruazala, mukosak eta material zikinak edo maniobra eta prozedura arriskutsuetan kutsatutakoak	▪ Oheratuta dauden pazienteen higieena ▪ Analisiak egiteko laginak lortzea ▪ Bide baskular periferikoak kentzea ▪ Aho-faringeko xurgapenak ▪ Kolostomia-poltsa aldatzea ▪ Jariakinak, gernua kudeatzea ▪ Kontaktua hondakin biosanitarioekin ▪ Aparatuak eta materiala garbitzea ▪ Post mortem zainketak ▪ Bide periferikoak kanalizatzea

3.2 Zitostatikoekiko eta beste farmako arriskutsuekiko esposizioa

Zitostatikoekiko esposizioa gertatzeko arriskua dago horrelako farmakoekiko kontaktua dakarten zereginetan:

- Kabinan prestatzea, farmazian.
- Medikamentu zitostatikoa ematea, kontaktua iraizkinekin eta/edo zitostatikoak ematen diren unitateetan zikindutako arropa zuriarekin.
- Hondakinak eta isurketak jasotzea.

Eskularru-mota hau jasotzeko, *“Medikamentu Zitostatikoen edo Beste Farmako Arriskutsuen Protokoloan”* ezarritako gomendioak jarraitu.

Orokorrean:

- Aldatu eskularruak farmakoak paziente bati eman ondoren beste bati eman baino lehen, eta farmazian kendu eskularruak prestatze-kabinatik ateratzean.
- Bota eskularruak behar bezala seinaleztatua dagoen hondakin-edukiontzia egoki batean.

Zitostatikoak manipulatzeko eta emateko NITRILO EZ ESTERILEKO eskularruak erabili behar dira.

KIRURGIA POLIMERO SINTETIKOKO eskularruak zitostatikoak eta hainbat farmako kanpaian prestatzeko erabiltzen dira.

3.3 Produktu kimikoekiko esposizioa

Produktu kimikoekiko esposizioa gertatzeko arriskua dago halakoekin kontaktua izatea dakarten zereginetan, esaterako, zerbitzu hauetan: laborategia, anatomia patologikoa, izpiak, etab.

Kasu honetan, eskularru-mota produktu-motaren arabera da (beti kontsultatu beharko da erabiliko den produktuaren SEGURTASUN DATUEN FITXA). Nolanahi ere, aintzat hartu behar dira hauek:

- Zenbait kasutan, produktu kimiko jakin batzuen aurrean ondo babesten duten material batzuk ez dira egokiak izango beste produktu batzuen aurrean babesteko.
- Produktu jakin batzuk nahastean, baliteke emaitzak propietate ezberdinak izatea, produktuen propietateak direla-eta espero zenaren aldean.

Oro har, eskularru-mota hau maiz aldatu behar da.

3.4 Erradiazio ionizatzailea

Erradiazio-sortaren pean lan egitea dakarten zereginetan.

Erradiologiaren eragina arintzen duten eskularruak erabili behar dira.

Bete Ospitaleko Babes Erradiologikoko Zerbitzuaren jarraibideak.

4. ARAUZKO ESKAKIZUNAK

Arrisku bat baino gehiagoren aurrean babesteko helburua duten eskularru guztiek lege-eskakizun eta arau jakin batzuk bete behar dituzte, eta dagozkion piktogramekin identifikatu behar dira.

Gida honetan aipatzen diren eskularruek salmenta-pleguan exijitutako eskakizunak bete behar dituzte, eta honako hauek izan daitezke:

Produktu Sanitario (PS) gisa:

- **CE marka**, 1591/2009 EDren arabera. **I. edo II. mota**. Adostasun-adierazpena, etab.

Norbera Babesteko Ekipo gisa (NBE):

- 1407/92 EDren arabera marka. **II. edo III. Katategoria**. Adostasun-adierazpena, ereduzko CE azterketa
- **“Produktu kimikoen eta mikroorganismoen aurrean babesteko eskularruak” izango dira. CE + jakinarazitako kontroleko organismo zk.**

Legeria eta arauak betetzeko, eskularruak piktograma batzuekin identifikatu behar dira ezinbestez; honatx horietako batzuk:

CE marka		PSren edo NBEren (edo biren) arabera ote den identifikatu behar du, legeria adierazita.
Babes kimikoa	EN 374  ADF	«A», «D» eta «F» kodeek adierazten dute zein konposatu kimikorako lortu den, gutxienez, 2. maila permeazioarekiko erresistentzia-saiakuntzan.
Erresistentzia kimiko txikia	 EN 374	Ez da aurreko baldintza betetzen, baina uraren eta airearen aurreko estankotasun-baldintzak betetzen dira; argibideen orria kontsultatu beharko da.
Mikroorganismoen aurreko babesa	 EN 374	Arauak exijitzen du 2. maila lortzea, gutxienez, eta horren baliokidea AQL < 1,5 da.
Arrisku mekanikoak	 abcd	a, b, c, eta d hizkiek adierazten dute zein prestazio-maila lortu den abrasio-, ebakitze-, urratze- eta zulaketa-entseguetan.
Erradiazio ionizatzaileak		Erradiazio ionizatzailearen eta kutsadura erradioaktiboaren aurreko babesa.

5. ESKULARRUAK ERABILTZEAREN KONTRAKO ONDORIOAK

Hona hemen eskularruak erabiltzearen kontrako ondorio edo arazo ohikoenak

▪ Ukipenezko dermatitis narritagarria

Dermatitis-motarik ohikoena da, eta larruazalean eremu narritatuak agertzen direla du ezaugarri. Arrazoi ezberdin batzuk egon daitezke horien atzean, bakarka edo elkartuta; horien artean hauek: eskuak behin eta berriz garbitzea, osasun-arloan lan-arriskua izan daitekeena; eskuak garbitzeko, lehortzeko eta hidratatzeko teknika egokia ez aplikatzea; detergenteak erabiltzea; edo eskularruetako hautsarekin kontaktua izatea.

▪ Ukipenezko dermatitis alergikoa

Hipersentikortasun atzeratuko erreakzioa da, alergenorekin kontaktua izan eta pare bat egun geroago agertzen dena, eta kontakturik gabeko zenbait egun igarotakoan desagertzen dena.

Eskularruak egiteko erabiltzen diren eta eskularruak jartzen laguntzeko erabiltzen den hautsaren konposizio kimikoko substantzia kimikoek eragin ohi dute.

Hona hemen alergenoren gisako ahalmenik handiena duten gehigarriak: karbamatoak (latexarekin eta nitriloarekin eginiko eskularruei elastikotasuna emateko erabiltzen dira), guanidinak, tiureak, tiazolak eta tiuranoak (azeleratzaile gisa erabiltzen dira kautxuaren fabrikazioan) eta parafenilendiaminak edo PPD (antioxidatzaile gisa erabiltzen dira).

▪ Berehalako hipersentikortasuna

Latexaren proteinek eragindako erreakzio immunologikoak. Latexarekin kontaktua gertatu eta minutu gutxiren buruan agertzen dira.

Errinitisa eta asma ere eragin ditzake, eskularruetako hauts-partikuletan finkatuta esekiduran gera daitezkeen latex-partikulak inhalatzeagatik.

**Zalantzarik edo sintomarik baduzu, jo ezazu Prebentzioko
Oinarrizko Unitatera (lan-osasuna)**

Eskularruen erabilera

Osakidetzak, bere profesionalen segurtasun eta osasunarekin duen konpromisoan, Erosketa Zentralizatuetako Erizaintzako Talde Teknikoaren partaidetzaren bidez eta Prebentzio Zerbitzuarekin elkarlanean, eskularru sanitarioa ongi erabiltzeko gomendio-gida hau plazaratu du.

ESKULARRU MOTA	ESKULARRUAREN ARGAZKIA	EZAUGARRIAK	ERABILERA	
BINILO SINTETIKOA, EZ ESTERILA		NBE III (norbera babesteko ekipoa arrisku biologikoen, kutsatzaileen, produktu kimikoen eta mikroorganismoen aurrean)	- Lagin biologikoak hartzea - Bide periferikoak kanalizatzea - Pazienteak mugitzea eta garbitzea - Tresna eta material sanitarioa garbitzea (kutsatua eta kutsatu gabea) - Zunda nasogastrikoa jartzea	- Jariakinak xurgatzea ¹ - Gernu-laginak jasotzea - Enemak eta uzki-bidezko medikazioa ematea - Post mortem zainketak egitea
NITRIKOA, EZ ESTERILA		NBE III	- Zitostatikoak manipulatzeko eta ematea - Bide periferikoak kanalizatzea - Lagin biologikoak hartzea - Pazienteak mugitzea eta garbitzea - Tresna eta material sanitarioa garbitzea (kutsatua eta kutsatu gabea)	- Zunda nasogastrikoa jartzea - Jariakinak xurgatzea - Gernu-laginak jasotzea - Enemak eta uzki-bidezko medikazioa ematea - Post mortem zainketak egitea
NITRILOA, ESTERILA		NBE III	- Esterilitatea eskatzen duten erizaintzako prozedurak - Zitostatikoak prestatzea	
KIRURGIA LATEX ESTERILA		- Hauts edo gelarekin - NBE III	- Interbentzio kirurgikoak - Miaketa odoltsuak	
KIRURGIA LATEX ESTERILA HAUTSIK GABE, GEHIGARRIRIK GABE		- Hauts edo gehigarri kimikorik gabe - NBE III	- Interbentzio kirurgikoak - Miaketa odoltsuak	
KIRURGIA POLIMERO SINTETIKOA		- Polimero sintetikoa, biniloa izan ezik - NBE III	- Interbentzio kirurgikoak - Miaketa odoltsuak - Zitostatikoak prestatzea - Latexekiko alergia duten langileak	
ARINTZE ERRADIOLOGIKOA		- Latexa edo polibiniloa, hautsik eta berunik gabea - NBE III	Erradiazio ionizatzaileetan erabiltzea	
HAZTAPEN ESTERILA		Polimeroa	Ondeste-eta bagina-haztapena	

¹ ZIUnizan ezik; han eskularru esterilak erabiliko dira